



(Gomila'tar Frantzisko'ren margo-lana)

UDIARRAGA'KO ELTZEA

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

“GUERNICA” LAUKIA

AGUR aldizkarian, orain urte batzuk, sei bat, dirala esan genduan «Guernica» Picaso'ren laukiarentzat leku egokia Gernika litzakela. Idaz-lan ori ZER'en agertzeko ustea dogu. Baiña gaurko ikuspegia biziagoa da eta ordukotik aldatu egin jaku. Aztertu dagigun pizka bat.

* * *

Zergaitik nai dabe euskaldun askok, geienak bear ba'da, lauki ori Gernika'ra ekarte? Ez lauki euskalduna dalako, euskaldunarenik ez dauko lauki orrek izena baiño eta izena bera be erderaz idatzia.

* * *

Ba-dago beste errazoi bat be lauki ori Gernika'ra ekartea eskatzeko: Danbaketa negargarri arek erriari egin eutson kaltea zelan edo alan ordaintzeko edo irain mingarri aren bardintzea egiteko. Or giza-legea ta dirua nastean sartzen dira.

* * *

Eta politikazko zioak. Lauki ori ikusiaz, erriak dauan zapalketea gogoratuko dau, arerioak zelako arrerea egin dautsoen ikusiko dau, norgan uste onik ezin izan leikean jakingo dau. Lauki ori eguneroko aber-tzaletasunaren irakasle mutua izango da. Albertzaletasun-errazoia ba.

* * *

Bake-zaleentzat beste errazoi aundi bat: Gudearen ondorenak zeintzuk diran zarrak eta gazteak, gizardiz gizaldi or ikusi al izango dabe eta orrelan gudeari gorroto izango dautsoe.

Bide au ez dogu ain argi ikusten eta aurkako eritxiak be atera leiz lauki orretatik. Irakatsi ori gudea sortu ebenentzat egokia ta baliokoa da, baiña zer esan iñongo erru barik gudara eroan ginduezan euskaldunok? Urrengoan olako gudarik ez dogula egingo?

Eta gaiñera laukian agertzen diran mingaiñak ezpata biurtuta agertzen dira, zaldiarena argien. Ez ete dau orrek adiazko gura berbaz barik ezpataz arazoak konpondu bear dirala? Eta orretan laukia igarle izan ete dan gagoz, gaurko jokabide batzuk kontuan izan ezker.

* * *

«Guernica» Gernika'ra ez da etorri, oraingoz ez beintzat, eta gerorako be itxarobide aundirik ez da agiri. Eta zer galtzen dogu orretan? Dirua? Bai, eta ez da gitxi. Erriaren aurrean testigantza bat? Ori be bai, gai batzutan ez ain argia.

Datorrela Gernika'ra lauki ori al danean, baiña etorten ez ba'da be ez gaitzean estutu. Gure erriak ori lako laukiak egingo dituan semeak sortu ditu eta sortuko be bai. Eta gaiñera euskal-kutsua argiago ezarten jakela.

* * *

Margo-ertiaren kondaira azaltzeko be egokia da, ez tankera orretan egindako lenengo laukia dalako, Picaso'k berak be ogei ta amar bat urte lenago egin eban tankera orretako laukia. Margo0bide barri ta larri batzun bidean esangura aundiko laukua dalako bai.

Kalteak baiño onurak geiago izango dira eta betor «Guernica» Gernika'ra.

EZNE-SALTZAILLEA

(Bizkaieraz)

(Antzerki txikia)

Antzezlariak bi dira: { Edeslaria
Ezne-saltzaillea

(edeslariak irakurrita esan leike, baiña obeto buruz)

(Edeslariak)

Neska bat ezne saltzen
plazara joan zan,
eskuak garrian ta
ontzia buruan.

Gerputz liraiña eukan:
garria me-mea,
ulle kizkur ederra
urre kolorea.

(Edeslariak au esan
bitartean ezne-sal-
tzaillea agertokian
sartuko da, eta ara
ta ona, jenteari bere
burua erakusten
ibilliko da.

Aren ago txikian
perlazko agiñak:
begiak baltz ederrak
gorriak ozpañak.
Gorputza mogitzean
pausoen neurrira,
gente guztia eukan
berari begira.

Polita zan benetan
baiña... kaskariña...
Onan mintzatzen jaku
gure Erregiña

Ni nazan politakin
Zer bear geiago,
Erregeren semea
Nigaz ezkontzeko?

(Au esan eta
agertokian ara ta
ona ibillialdi
batzuk egiñaz,
arin ta bizkor,
joango da).

(Edeslariak)

Gure neska liraiña,
onen, amesetan
plazara ezne saltzen
doa ariñeketan.

Aupa!!! Pozez beterik
egin dau saltua...

(Barruan ontzi apurtuen
zaratea entzungo da)

Ta burutik jausi yako
eznedun kaikua.

(Ezne-saltzailleak)

Ezne kantine bete au
saltzera daroat;
onegaz artuko dot
dirutxo apur bat.
Diruagaz arrautzak
erosiko dodaz,
txitak aterateko
olla-lokeagaz.
Egiten diranean
oillanda oillasko,
diru pillo polita
dot irabaziko.

Erosiko dot gero
txarri imeduna,
amaika txarrikume
gingo dituna.
Emongo dausat jaten
urun ta ezkurra,
loditurik jo arte
sabelagaz lurra.

Bei bat erosiko dot
txarriak salduta,
ta ganaduz beterik
laster nire korta.
Abereak salduta
zelako dirutza!!!
Iñor ez da izango
Ni aiña aberatsa.

(Ezne-saltzaillea
agertuko da negarrez,
ontzi-zatiak eskuetan).

(Ezne-saltzailleak)

Agur, ezne ta oillo,
txarri ta dirutza!!!
Agur betiko nire
Erregin-ezkontza!!!

(Edeslaria)

«Olan dira gizonen
andikeri utsak:
txakur gosetiaren
gabeko amesak».

LURRAKO PADISUA

Beñola, gizon aberats bat, Kadish, trankil etxe aundi baten bizi ei zan bere emazteagaz eta Atzel, bere seme bakarragaz. Kadish'en etxean senide urruna zan umezurtz neska bat izenez Aksah, bizi zan. Atzel luzea zan ule eta begi baltzak eta Al-kash'ek begi urdiñak eta ule gorritzak eukazan. Biok alkarre-gaz ikasi, jan, eta olgau egiten eben eta jende guztiok zarragoak ziranean ezkonduko litzakezala uste eben. Azi ziran; alako baten, Atzel gaisorik jausi zan. Atzel'ek eukan gaisotasuna ezezaguna zan; mutilla ilda egoala uste eben. Au nundik atara eban itaunduko dozue zuek.

Txikia zanean, paradisuri buruz ipuiñak esaten eutsozan inñude bat euki ei eban. Atsoak paradisuan ez zala bear ikaste-rik, ez bear egiterik esaten eutson; an okelarik onena jaten zala; Oneentzat Jaunak gordeten eban ardaoa edaten zala; bako- tzak gura eban arte lo egin leikeala eta ez egoala inñungo bete- bearrik.

Atzel berez alper aundia zan; ez eban gura goizean jagi ez ikasi. Egun baten bere aitaren irabazpideak artu bear leukeza- la ba-ekian. Paradisura joateko lenengo il bear dogunez, muti- llak arin iltea erabagi eban, eta laster idla egoala iruditu ja- kon. Bere gurasoak, jakiña danez, arduratsu egozan eta Aksa- h'ek, bere emaztegaiak, ez eban egiten beste gauzarik negar ta negar baiña. Senideak, al leikiena egin eban bizi zala berak ikusi egian, baiña dana alperra izan zan. Mutillak esaten eban: «Zergaitik ez daustazue lur emon? Zuen erruagaitik ezin nein- teke paradisura joan». Osagille asko joan ziran Atzel'engana baiña ezin leikien ezer egin. Gero mutillak ez eban jaten eta berba gitxi egiten eban eta orrexegaitik bere sendiak benetan ilgo zala uste eban.

Egun baten Kadish, osagille ezagun eta jakintsu bategana joan zan. Ori «Yoetz» osagillea zan. Aitari entzun ondoren, osagilleak esan eutson: «Zortzi egunetan zure semea osatuko dot baiña dan-dana diñotzuna rarua izan arren egin egin bear dozu». Kadish'ek baietz erantzun eta Yoetz'ek egun aretan gai- soa ikertzeko esan eban. Kadish'ek etxera eldutean bere emaz- teari eta morroiei osagilleak esango dauana egin egiela esan eu- tsen.

Yoetz eldu zanean, Atzel'aren logelara eroan eben eta muti- lla zuri-zuri eta argal-argal baruagaitik ikusi eban. Au iku- siaz osagilleak esan eban: «Zergaitik daukazue illotz bat etxean? Zergaitik ez daustozue lur emon?» Itz onek entzutean, gurasoak arri ta zur geratu ziran eta Atzel'ek erantzun eban: «Iksten dozue? Neuk neukan errazoiak!».

Naiz eta Kadish eta bere emaztea arriturik gelditu, osagi- lleak itzak gogoratu ebezan eta illeta egiteko gauzak gertzen asi ziran.

Yoetz'ek logela bat pardisu baten moduan eskatu eban. Or- mak saten zuriagaz jantzi ebezan, leiozak itxi, eta kortinak be bai. Kandelak egunez eta gabaz argi egiten eben eta morroiak zuriz eta egoakaz jantzita egozan, aingeruak bailiran. Atzel'el guztiz pozik lo etin eban eta itxartu zanean, logela ezezagun baten egoan:

—Nun nago? - itaundu eban.

—Paradisuan, jauna - erantzun eutson morroi batek.

—Gose naz. Ekarrri egistazuz okeloa eta ardao sakratua

—Esan esan Atzel'ek. Morroiak txalo batzuk egin ebezan eta beingoan morroiak eta inñudeak lepoetan egoakaz agertu ziran; okela, arraiña, melokotoiak, nisperoak, piñak eta granadak ekarten, eta morroi bizartsu batek edontzi bete ardaoa emon eutson. Atzel'ek jan dana eta amaitu ebanean lo egin eban. Itxartu zanean ez ekian ia eguna ala dana eta amaitu ebanean lo egin eban. Itxartu zanean ez ekian ia eguna ala gaba zan, persianak itxita egozalako eta kandelak argi egiten ebelako.

Ondoren, janaria aurregunean lez emon eutsoen eta mutillak itaundu:

—Ez daukazue ogirik, kaferik eta eznerik?

—Ez jauna, Paradisuan beti bardiña jaten da.

—Gaua ala eguna da?

—Paradisuan ez dago egunik, ez gaurik.

—Zer egingo dot orain? - itaundu eban mutillak.

—Paradisuan ez da ezer egiten.

—Nun dagoz beste santuak?

—Paradisuan familia bakotzak bere lekua dauka.

—Eurek ikertzen joan neintekte?

—Paradisuan etxeak euren artean urrunagi dagoz.

—Noiz etorriko dira nire aita, nire ama eta nire emazte- gaia?

—Zure aita ondiño ogei urre geiago biziko da, zure ama ogeta amar eta Aksak berrogei ta amar.

—Bakarrrik egon bear dor?

—Bai jauna.

—Zer egingo dau Aksah'k?

—Orain zugaitik lutoan dago baiña laster mutil gazte bat ezagutuko dau eta beragaz ezkonduko da.

Atzel jagi zan eta logelatik ibiltzen asi zan. Zeozer egin gura eban baiña ezin leikean eta gaiñera ez ekian zer egin; berak, Aksah ikusi nai eban, ikasi bear egin, berba egin lagunakaz... Egun baten, aspertuta, morroi bateri esan eutson:

—Orain ikusi dot bizitza ez dala neuk uste neban baizen txarra.

—Bizi-izatea sailla da. Ikasi, lan egin, irabazpideak egin bear dozuz. Ementxe da errezagoa bizia.

—Egurra ebagi eta arraiak artu naiago dat emen egon bai- ño. Noiz arte egongo naz eman?

—Betiko.

—Betiko? Burua il gura dot.

—Illak ezin leikie burua il.

Zortzigarren egunean, morroi bat, ondoikasia, Atzel'aren- gana joan zan eta esan eutson:

—Jauna! Uts bat egon da. Zu ez zara il. Paradisutik joan egin bear dozu.

—Bizi nazala esan nai dozu?

—Bai eta neuk Lurrera eroango zaitut.

Atzel, pozaren pozez, aterantz joan zan baiña morroiak benda bat ipiñi bear eutsola esan eutson. Bere etxeko ibiltetigan gora ta bera mutilla eroan eban eta azkenik bere sendia egoan gelan benda kendu eutson. Atzel'ek aitari eta amari mosu bat emon ondoren, Aksah'ri itaundu eutson:

—Ondiño maite nozu?

—Bai, ondiño maite zaitut, Atzel.

—Orduan ezkondu egingo gara.

Egun batzuk igarorik, ezkondu ziran eta Yoetz osagillea omenezko bazkaldarra izan zan. Lagunak urrineko urletatik ezkonbarriei opari asko ekarrri eutsoezan eta jaja zazpi egun eta zazpi gautan luzatu zan.

Atzel eta Aksah oso pozik bizi ziran eta Atzel aberrian sa- leroslerik onena zan. Eztegu ondoren arte, Atzel'ek ez eban ja- kin Yoetz osagilleak osatu ebanik eta guzurretan pardisu baten bizi izan zanik. Senar-emazteak sarritan euren semealabei eta euren illobei Atzel'eri jazo jakona eta Yotz osagillearen osabi- dea esaten eutsoezan eta beti itz onekaz amaitzen eban:

«Eta jakiña danez, inñok ezin leike esan zelakoa dan paradi- sua».

ISAAC BASHEVIA SINGER'ek
Edestutako Umeentzat ipuiña.
(Elerti-arloko Nobel sariduna.—1981).
(Astrid Barona'k euskeratua)

KATALINTXO eta EUZKADI

Katalintxo, baserri-neska polita,
etxean zazpi neba-arreba ziran eta,
Kastilla'ko uri andi batera
mirabe joan zan,
etxeko-andra aberats baten etxera.

Gure Katalintxo bizkorra zan,
eta etxeko lanak
laster ikasi ebazan:
Jauregiko gelak txukundu,
ontziak garbitu,
maia lagundu,
jatekoak prestatu...
Etxeko-andrearen esanak egin,
zeatz eta fin-fin.

Etxeko-andra artoa gure Katalintxorekin
txoratuta bizi zan,
Katalintxo lakorik ez egoan,
ango inguru guztian.
Au neska langillea!, bizkorra!,
argia eta zurra!!!
Nik ezer esan baiño leenago,
Katalintxo or dago,
aizea baiño ariñago,
esana egiteko.

* * *

Katalintxok, gaur, 21 urte bete ditu:
gorputza jako anditu, ederragotu,
adimena argitu, indartu...
eta bere eskubideetaz jabetu-konturatu...
Eta ikasi dau ikasi,

aste ta jai-egunetan lan egitea
dala giegi...
eta irabazia gitxiegi...
eta lana astunegi...
Eta etxeko-andrea bezela,
bera ere emakumea dala...
eta tratu ohea merezi dauela...

* * *

Etxeko-andrearentzat orain,
gure Katalin, ez da «Katalintxo»,
«Katalin-arro» baiño,
«Katalin lotsabako», eta olako...
Orain da, Katalin «mustur-zikin»,
«fardel-gaitzo», «kaskarin», «pinpirin».

* * *

Gu, euskaldunok, ez ete gara kanpotarrentzako,
Katalintxoren antzeko?
Leen bizi giñan zapalduta, baztertuta,
gure nortasuna galduta,
besteen morroi eginda,
eta orduan bai, euskaldunak giñan,
jatorrak, langilleak, zintzoak eta esanekoak...
Orain, ostera, arrotu egin ei gara...
eta gure buruaren jabe izatera,
eldu nai dogu...
Olako arrokeririk ikusi dozu?

GOIKOETXEA'tar Iñaki

EUSKAL-BERTSU BATZUK

7

LEBATZ-ZALEETAZ
ARRASTERUEK'GAIK

1

Gure erriko arraintzaliak
Kanarias uretara,
itxas-ontziak ainbat jun ziran
aurten be irabaztera;
bertara elduz ontzi aurrenak
asi arraintzak eitera,
arrantza orreik eta pozak be
jun yakeen gitxitzera,
geruaguen juen ziranak
buelta artuaz etxera.

2

Gure kai-portun geratu ziran
emeretzi bokart-zale,
eta oneik be, asieran asi
arrantza on ekartzaille;
Kanarias'tik etor aurrenak
oneik be on irabazle,
baiña emen be ango antzera
gerorantz bokart-eskazle,
urrengo urtie izan bedi
arrantza onen emoilte.

3

Mota guztiko arraintzaliak
itxasun dabe bizitza,
orrexegaitik gogo biziak
ara ta ona dabilta;
sari askotan ibilkerie
izaten dabee latza,
beste askotan latz ori kenduz
dabe sendi on alaitza,
euren bizitza orrela da-ta
itxasoari damotsa.

4

Bokart-zaliak udabarri-a
ez dabe ontzat artuko,
Kanarias'en eta emen be
ondo porta ez dalako;
bietan pozik asikeran da
geroz itun geratzeko,
esan daikee bokart-zaliak
«udabarri-itunpeko»,
ona izango dalakuen da,
txarra izan yakelako.

5

Kostera txarra gastuek sendo
alaitasuna urruti,
gaurko bizitzaz etxe-pobretan
egon daikee kezkatu;
kezkarik gabe gaur bizitzeko
ondo bear irebazi,
Ludi onetan gaur edo biar
txarra ta ona datorki,
gure bizitza olan dogu ta
itxaropentsu ein bizi.

6

Urte ontako bokart-kostera
txarra bokart-zalientzat,
eta batezbe guztiz txarra zan
gizona galdu dunantzat;
arrantzaliak euren kondairan
zer konta dauke askontzat,
ainbat urtetan gizon galtzeak
jakin gabe daudenentzat,
zenbat naigabe ta samintasan
dauan arraintzalientzat.

Bermiotarren lebatz-kalatan...
arrasteruek jokutzen,
ori dala-ta amu-arrainak
gitxi dagoz arrapatzen;
ez al dakie ontzi tar orreik
kaltez daudenak landutzen?,
andiak beti txiki guztiak
errez dauke zapaltzen.

8

Gure arbaso izandakuak
arrain-kalak len billatu,
orrexegaitik etsairik gabe
eiten ebien jokatu;
urteak geroz arrasteruek
lebatz-kalatan aurkeztu,
sasoi artatik orainartien
burrukalari saiatu.

AZPEITIA'tar GOTSON
Arraintzale-Jubilatuek

BERMIO'N ELIZAK

Gure erriak, Bermio erriak
zortzi eliza daduzka,
zortziretatik «PARROKIA» lez
izentauta iru dauzka;
Miren Donea, Eupeme Deuna
ta baita be Deun Pantsezka,
eliz oneitan dauden apaizak
danetara pozez anka.

Eupeme Deunan nire ustetan
apaizak dagoz gitxitxu,
beste parroketan bezela
egon ba'litza ondotxu;
illeta dauden egun bakotxan
bi elizakuei deitxu,
jun dan urtetik modu orreitan
Eupeme Deuna aurkitxu.

AZPEITIA'tar Gotson'ek

LEIRE, EUSKALERRIKO OÑARRI

IBILLALDIA

Urtero, Bilboko S. Anton parrokitik ibilalditxo bat egiten da, euskal erritik zear, erri onetako pixi ederrak ikusta tzera.

Aurtengo ibilalditxoa, Laire'ko lekaidetxe zoragarria ikusteko egin dogu.

Euskalerrian eta batez bere Nafarroan ba dira zenbatu ezin beste gaztelu, lekaidetxe ta eliz zoragarriak; eta eurotariko bat ederrenetarikoa ta entzutetzuenaz ezpaibarik, Laire'ko Salbatore Deunaren lekaidetxea da.

TOKI EDERRA

Leire Nafarroa ertzean dogu, Aragoi mugatik ur ur, Arangoiti mendiko malda baten lautada-txoan, zuzen bere.

Yesa erriko oxin-aintzira ondo-

tik Leirëraño 4 kilometroko aldapa dago.

An bai ikusmira ederrenetakoa: Be-aldean aintzira urdiña, Aragoi erreka, Xabier eta Sangotsako inguru ederrak, aruntzago Aragoiko lautada azkenbakoa ta, urrun urrun, ia laiño artean galduta, mendi erreskada aundia.

Leire'ko inguruak mendigoizale-entzat be leku atsegingarriak.

KONDAIRA

Noiztikoa da Leire entzutetsu ori?

Antxiñetako gizaldietan ba-ziran gizon santu batzuk, bakardadean eta Leire'ko artxuluetan euren bizitza santua eroaten ebanak; gero, VIII garren gizaldian, Lekaide Beditarrak, oraingoa baiño txikiagoa zan lekaide txe bat, egin

eben arrezkero gizaldiz gizaldi etxe ori aundituagaz joan da.

Bere oñarri lez eliz zoragarri bat dago bertan, Bisigotiko era-koa?

Len antxe egoan S. Birila'ren irudi eder bat, orain lapur ren bildurrez toki ziurrago baten gordeta dagoena.

San Birila orretzaz edespen edo ipuin bat zenbatuten da.

IPUIÑA

Birila ori Abata zala jean zan etxetik urrun ez dagon iturrondo batera eta zerua zelakoa ete zan ausnartuten egoala, txoritxo bat agertu jakon abeslari!

Zelako ederra ebetixoa!

Igarri barik berari entzuten igarro ziran irureun urte.

Birila etxera biurtu zanean ez eban iñor ezagutu: Len beneditar jantzi baltzdunak egozan etxe artan eta orain Zisterreko lekaide zuriz jantziak aurkitu zituan.

Gure santuak iñoan: Ni emengo Abata naz, orain ordu gutxi dala urten dot itur-ondora eta alkar, otoira nator orain. Azkenean, lekaideak liburuetako izen-zerrenda ikusi eben eta antxe aurkitu irureun urte aurrerago Birila izeneko abata, zelan ez zekiela, galdu zan.

Ederra txoritxoaren abestia irureun urtetan zear S. Birila zora-biotuta eukin ebana!

Egokia ipuin au zeruko atseginañaren aunditasuna adierazoten emoteko. Izana ala ez izana?, dana dala polita!!!

ERTIA

Leire'ko eliz nagusia erdiraño erromaiku erakoa da garbi garbi, XI garren gizaldian Beditarrak an egozala sagaratua.

Elizaren beste erdia gotiku liraiñekoa da XIII eta XIV'an egiña, Zisterreko lekaideak an egozala.

Aro areitan Beditar eta Zisterre'ko lekaideen artean burruka go-



CUBA BARRUTIK (VIII)

ASKATASUNA

POLITIKAN ETA SINDIKALGINTZAN

Ez dago ezelango askatasunik. Naiz eta orrela izan, Baten baiño sarriago entzun dot: «Cuba'tarrak demokratikoak gara».

Egia esan, ez dakit nondik. Zer esan, esaterako, bertako mugeaz? Askatasun apurren bat dagoen larterrietan mugak idekiak dira atzerrira joan-etorriak egiteko. Cuba'n, ostera, oiñarrizko arau au be ez da betetzen.

CUBA'TARRA POLITIKAN

Cuba'tarra, geienbaten, ez da politikan sartzen. Fidel Castro'ren itzaldietara joan eta txaloak jo ezker, bere politikako betebeurrak bete dauz.

Eta onetan, naiz ez gogoz aurka izan, joan-bearra izaten daue. C.D.R.'koak (Comités de Defensa de la Revolución) kale eta auzo guztiak kontrolatzen dauez, eta joaten ez diranak, txarto ikusiak izaten dira.

Politikan ez eze, lan arloan bertan be ez daue askatasunik izaten: Eataduak agintzen dauksen lana egin-bearra izaten daue. Jokabide au emen soldadus-kara joatearen antzerakoa da.

CUBA'KO POLIZIA

Bere eraso-aldiak ez dira makalak izaten! Jen-deak ikara itzela dautse.

Baiña sarritan bere betebearretik kanpo be ibiltzen dira: onela, lapurreta asko eurak edo CAT'ekoak dira.

Oneitariko lapurreta asko ez dira iñoiz argitzen, eta au, Cuba'ko polizia eta C.D.R.'ren ekintzak ezagutu ezker, ez in daiteke besterik pentsatu.

CAT ETA LAPURRETAK

C.A.T. atzerritarrentzako dendak dira.

Cuba'tarrak eta atzerritarrak erosketak egiteko denda ezbaridiñak dauez, eta dendez gaiñera, salneurriak be bai: atzerritarrak askoz merkeago eta ugarriago erosteko erreztasunak dauez.

Cuba'tarren erosketak, ostera, neurtuak izaten dira.

Lapurreta oneik dirala eta ez dirala, neuk entzuna da C.A.T.'ko eta polizia batzuren arteko alkar-izketa bat: «Holandatar ori pozik izan daiteke; etxean danetarikoa euan eta...».

Ostutzen dauezan gauzak kontutan artzen joan ezker, lapurreta aundirik ez dala pentsatu dagikegu.

Geien baten radio-kasetak, jantziak, prakak, al-kondarak, nikiak, oskiak edo antzerakoak eroaten dauez.

Baiña geiago ez daukanari, eurok kendu ezker...

Piru LEGARRETA

→ gorra izan ziran, errege, gotzain eta abarrek parte arturik.

Lekaidetxearen aseiratik XIII gizaldira arte Beditarrak izan ziran ango biztanle, XIII gizalditik XIX gizaldiraño, Zisterreko lekaideak.

KONDAIRA

Leire izan da gizaldietan oroi-leku, kultura leku bai ta estualdientan, ERrege, Iruñako gotzain eta beste askoren gorde leku be bai.

Naparroa'ko ESKORIAL deitu dautso baten batek Leire'ri, baiña esan geinke, edestian Leire ESKorrial baiño garrantzi aundiagokoa dala.

Joan dan gizaldian, ondasun askatze edo «desamortizaziñoa» dala ta ezala galdu zan Leire.

1836'ko urtean aldendu ziran lekaideak, eta urte orretatik 1945 urteraño guztiz arrakaldu zan Leire.

Gau txoriak, azeri ta beste pizti batzuk ziran ango biztanleak. Euriak eta afrontuak arrakaldi zituan orma asko. Dana zan arantza, asun, elorri, sasitza, ta sastrakal!

BARRIRO

1945'an Naparroako Aldundia bitarte zala asiera izan eban Leire'ren barrizteak eta ederto barrizte bere.

1954'an eldu ziran bertara Beditar lekaideak.

An dagoz zaindari. Ostera bere an entzuten dira Gregorianoz abestutako Jaunaren goratzarre bigunak. Lekaideak otolari baiña bai ta lengille, batez ben kultura bideetan.

Egun ederra igaro dogu.

Ioan zu be, irakurle, Lekaide-txe, eliz, dorre, ateinguru eder, erregeen azurleku eta abar ikustera.

Ez zara damutuko. Gure euskal-erri biotzekoa zenbat eta geiago ezagutu, geiago ta geiago maitatuko dozu.

GALLASTEGI'tar Kauldi

BERTSOLARIAK BERMEO'N

Bermeo'tarrak euren jai entzutetsuak egin dabez eta aurten ur-urretik ikusteko ta biziteko erea izan dogu. Benetan alaiak eta zaratatsuak dira jai oneik. Iraillaren 5'etik 16'ra nekatu-ezin agertu jakuz bermeotar gazteak eta ain gazte ez diranak. Eta kanpotik etorritako batzuk be bai, eleizpeetan taldez lo egiten dabela.

* * *

Jaien barruan bertsolarien ekiñaldi bat izan da.

Aspaldixuan entzun barik geunkazan gure bertsolari txalogarriak. Gaiñera Labayru erakundeak ipiñitako ekiñaldia zan eta erakunde oneri maitasun eta zaletasun aundia dautsot. Joan ez egitea, Kontxi'k eta Amaia'k eta beste batzuk ez eben onartuko, eta errazoiatz. Eta geiago oraindiño, Erri - Irratia be eratzaille zan... Ezin geratu ba joan barik.

* * *

Bederatzi bertsolari izan ziran etorriak eta ekiñaldira sartu ziranak. Ez zan ba, txantxetako ekiñaldia.

Erriaren aldetik be erantzun oso egokia. Bermeo'tarrak batzea ez dala gauza erreza esaten dabe, baiña oraingoan Artza Pelota-leku aundia bete-beterik egoan. Ba-diño orrek zerbait Bermeo erriaren alde.

Bersolarien lana beti iruditu jat txalogarria ta arrigarria, Erreza dirudi, berezkoa gauzea dala esan lei, eta norbera asi egiten eta ezin egin! Ze demontre ete dago or? Berezkoa bai, baiña giroaren indarra be ez txikia, eta ekiña.

Aurrean geunkazan ba gure gizaundiak, arrokeri barik jantzita, alkar-izketa pozgarrian, barrekari. Bederatziak ez nebazan ezagutu eta naizta aurkezlariak euren izenak esan, ez daukadaz buruan, baiña an ziran Abel Enbeita, Sardui, Jon Enbeita, Lopategi, Lazkano, Agirre... Eta etorteko ziran beste batzuk ez ziran agiri: Amurritza ta Azpillaga esaterako.

* * *

Zelakoa izan zan ekiñaldia? Ederra, zoragarria, zailantza barik. Ordu ta erdian iraun eben ekin eta ekin eta iñok ez autson luze eretxi, geienoi ariñegi igaro jakun denpora ori eta aurrera jarraitzea eskatuko genduan.

Baiña ezin ukatu bertsolariak emon al eikeen guztia ez ebela emon eta ekiñaldia, egozanak egozalako eta egoan jantetza egoalako, askoz ederragoa ta pozgarriagoa izan zeitekela. Izan be ontasunaz, nekez naikotuten gara.

Bertsolarien aldetik erria, erri zeia errez poztuteko maltzirkeritxu batzuk erabilli ziran. Eta ondo dago, neurri batetik aurrera ez doanean. Ez dot uste neurritik kanporako ezer izan zanik. Eta batzuk aitatzearren, auto-stop egiten aurkitu eben neskea, España'tarren aurkako (U.C.D.) politika-ekiña gogoratzeko Leon'go bazkaria ta Koltza-orioa aitatuko dodaz), lekaide edo prailleai buruzko ekiñaldia, polita baiña... orixe, eta amaikeran izan zan itzalditxua, alkartasunerako aulkulari, Bear-bearrekoa, eta ez gitxiago zan errian zalako, baiña... orixe.

* * *

Aurkezlarria Erri-Irratikoa izan zala esan dogu. Oneri buruz zerbait esan bear guztiai geure ustez merezia emoteko.

Aurkezkundea ondo egin eban: Neurtuta, egokiro gertatuta, larregi luzatu barik, gaurkotasunezko gaiak aukeratuta... Ederto. Baiña neure ustez pizka bat otz, ez bertsolariak, erria baiño. Zergaitik ez Bermeo dan lako erri abeslari bateri zerbait abestu-azo, edo bertsolariari erantzun abestiz (au utsa izatekotan bertsolariena izan daiteke) edo abesti ezagun bat asieran (agur Jaunak) eta beste bat azkenean (Gernika'ko Arbola edo «Abertzale izan ezker», gai ori agertu zan eta). Bere berbak be erriarentzat gitxiagi ta otzegi izan zirala uste dot, asieran ainbeste jente egoalako zoriona eskintzea alde batera dala.

* * *

Ekiñaldiak bere zati egokiak izan zituan, gitxi gorabera oneik: Banaka erria agurtu eta sarreran artu daben barruko eragiña azaldu; bakoitxari gai bat, aapaldi bi egiteko; irukoteak gaia ipiñita; irukoteak azken-bardin ezarriakaz, eta Puntura gaia aske dala; agurra.

* * *

Bertsolarien erantzuna geienetan ona izan zan. Gogoratu dagiguzan aitzu-eziñeko batzuk.

Jon Enbeita'k Urretxindorra zan bere aititaren omezez egokiro abestu zituan ezarri eutsuezan aapaldi biak, arek asotako lana, aberriaren aurrerapenerako bere jarraibidean doala esanez.

Abel Enbeita'ri be gai beroa ezarri eutsoen: berak espetxan egindako urteen laburpena, eta egokiro egin eban.

Esandako gaiak, Auto-stop'arena esaterako ondo, baiña lekaide edo prailleai buruzko ekiñaldia oso gogoangarria izan zan: Lopategi'ri gogoratu eutsoen bere gaztetako lekaide-artean egindako aldia, eta Lopategi'k umore onaz eta egokiro erantzun eban.

Koltza orioari buruzko bertsoak be, Lopategi'renak uste dot, lorategi batera sartzeko lakoak izan ziran, naiz ta gaia, sakonean, len esan dogun lez, entzun-gurako gauzak esatearen barruan egon.

* * *

Eta orixe zan Bermeo'ko ekiñaldi oneri buruz esateko geunkana. Amaitu baiño len azterpenaren azterpena egin bearko dot.

Ez naiz bertsolaria, ez dakit bertsorik egiten eta orregaitik ezin sartu izan naz, bertsoetan garrantzi aundikoa ez dan gaia baiño barrurago. Nik zer dakit, gizajo onek, bertso onak ala txarrak izan ziran! Besterik ezin egin, an izan ziranai entzundako gauza batzuk esan eta azaleko eritxia agertu baiagertzen ez dala. Ori bai, eritxia orrelan dala ezin ukatu.

* * *

Zoriona ba, Bermeo'tarrai bertsolaritzarako zaletasuna ain ugari agertu dabelako. Or agertzen da bertsolaritza ez dala baserritarren gauzea, euskaldunena baiño, eta euskaldunak izatean arrantzaleai iñork ez dautse geiago egingo.



Eta zoriona an izan ziran bederatzi bertsolariai, egokiro ta pozez euren ekiñaldia egin eta betebearra bete ebelako. Bertsolarien elburua erria zurtuteko dan igarile-lana ba'da, egin eben orretarako zerbait eta bigarren elburua jaietan dagon erria poztutea ba'da, ori askoz obeto bete eben.

Eta aurkezlariari be bai, zoriona ta eskerrik asko ordu ta erdi eder orreik igaroreko laguntza izan zalako. Euskerearen arazoa be, eta geure Bermio uriari begira, ederto gogoratu euskun. Ekiñaldi guzti au orretarako laguntza izan daitela, Labayru'ren eta beste erakundeen lanak be bide dirala.

OLAZAR'tar Martin'ek

BERTSOETAN

Z U R I

Zure gogoa dakust
arpegi izpian,
ene euzko maite;
irripar ezilkorra
darizun bitartean
gizon izan zaite.

Berezkoa izan da
euzkoatarreen artean
gizotasun garra;
egizaletasunak
edertu zinduzan, zu,
lagun maitekorra.

Erru bageko senak
emon eutsun bidea
gizonen artean;
illei galdezka nago...
zer zeunken biotzean
zintzotasunean...?

Gaur, euzkotar garbiak
asaba zarreen jarrai,
ori da erraia...!!!
Iñok ez zaitu ilko...
zuk berbiztuko dozu
Euzkadi maitia.

Zapaltzen dozun lurra,
zeurea da sortzetik,
beti, ezilkorra;
ez dago ezpatarik
egiaren aurrean...,
Euzkadi bakarra...

A R A L A R

Oi lur, gure gain maite...
euskaldunen gogoa
zure fedea zan;
Noz sortu zan arnas au
gizon ta arkaitz artean
malda goitik beran...?

Zer daroa zugana
euzko jende jatorra
onaren bidetan...?
Fedeak dau indarra
Mikel'en garaitzetan
ta euzkotarretan.

Zure arkaitz zuriak
otoiaren indarrez
illezkorrak dira;
eguzkia ta edurrak
zuek apaintzen dabiltz
goitar agindura.

Aralar'ko mendia,
gallurrak ta gerria
ernai ta sendoa;

pagadi mardulenak
artu dabe eznea,
lurreen erioa.

Zer dakust zugatz ortan,
ain sendo ta ain lerdan
lurraren gainean;
zer dauka mamin orrek
ainbeste semerentzat
gibel urdiñean...?

Arkaitz gogorrek zaree
euzko gogoa legez
sendotasunetan;
zuen odol zuria
gizon adorea da
zain gorrietan.

ARALAR dirdaitsua,
zure zugaitz bakoitza
edertasunetan,
euzkotar sendoa da
egi zurrak zabaltzen
Aberri miñetan.

ARABA

Argi, irudimena
ondo gabe nai neukez
sentipen bizitan;
ez naz ezerean duin
arrigarri artean
nere intziritan.

Jakituriaren gona,
aurten, udabarrian
biztu da lurrean;
amodioz Araba
itxaroten egoan
apaltasunean.

Gizonaren eskua,
Jaungoikozko gogoa,
euri ta eguzki,
ernai, ibili dira
giroaz oparotzen
Araba, maiteki.

Buruak ies ein daust,
begiak lilluratz
luze-zabalean;
goiko urdiña, almentsu,
dizdizeratan dabil
urre printzapean.

Maite zaitudan lurra,
guriñez bete zaitu,
al-oro eukanak;
maitegarria ziñan
zure semeen lanetan;
oi! lur sentzundunak.

Gogozko maite miñak
zugaz bat einda nauka,
ondorik gabea;
agoaren gosea
iruntzi nairik dago
ezti ta esnea.

Zure-ederrez mindu naz
ondasunez beterik
daukazuz erraiak;
Araba'ren babesak
oparotasunean
daukaz iturriak.

PAULIN

"BINGO" A

Badaezpadako sariaren jokia dogu bingoa, eta joko lez guztiz ausarta.

Joko onen buruzagiak eurak diñoenez, ortik sortzen diran obariak eta onurak laster izango dabe euren berazkadea.

Epea? Urtebete edo bi geiengan.

GAURKO DIZDIRA

España laterriaren barruan 865 aretotan jokatzen da.

Euretatik iruren bat baiño geiago Madrid'en eta Kataluña'n dagoz eta jabeak diru-aurreratze galantak egiten dabez, daukezen aretoen arabera: bost areto daukezenak bederatzi milloi lauerleko; amar daukezenak, amabi millorren auarerrratzea, eta abar...

Urteko, Laterri osoan 2.550 milloi «kartoi» jokatzen dira eta erri-dirutzak ortik (% 20'ko zergea zenbatu barik) 5.110 milloi lauerleko eskuratzen dauz.

Kartoi bakoitxaren balioa pezeta bikoa da 40.000 lagunek egiten dabe bear areto oneitan. Nainkoa ondo irabazten dabe (600.000 lauerlekotik gora urteko) eta eskupekotan ia beste ainbeste. Buruzagiak zer esanik be ez, guztien artean 30 milla milloi inguru.

ETORKIZUNA

100 pezetako kartoi bakoitxetik, amar buruzagientzat dira. Kendu dagiguzan lauerleko bi, kartoiaren balioa, eta irabaziaz zortzi pezetatan geratuko dira.

Langilleen alogorak gorantza doaz. Aurtengoak guztiz amabi milla milloi izango dira.

Irabaziaz alkargoen legea ezarri ezker, % 34 gixtututen dira. Emendik eurrera begiratu bearko da, baita, alogoren igoerak zelakoak izan tresnarik barienak zeintzun izan be bai.

Kontuen kopurua eten barik gorantza doa eta onez gaiñera sakela murristen daben ustebako zertzelada asko aurkitzen doguz.

Baiña laburkiro esanda, buruzagi-jabeak itxarrik dagoz eta gaitz onein osakairen bat alik lasterren biltatzeko jo ta ke diardue.

ARREGI'tar Josu'k

*Txoritxu ama gaixok
abia ondoan,
mutiltxo ikusi dau
abi artu naian;
txoria txilioka,
larri ta bai larri,
adartik adarrera
Ume-zain urduri.*

*Mutillak ezartean
eskua abiai,
txori ama biguna
pikozka zantarrai,
bardin aita txoria
lumak-gora, ernai,*

*zauritzen dau mutiko
umeak gorde nai.*

*Txakur amak ba-ditu
txakurkumetxuak,
gizonen bat ba'dator
lapurtzen umeak,
txakurkumak gorde dauz
oin-arteana amak,
amorratuz ta gogor
zaintzen dauz umeak.*

*Agirian ditula
agin-otrz zorrotzak,
begietatik barruko
agiri su-garrak,*

*ezpanetatik bera
bitz larri zuriak,
ama lenago ilgo da
lapur baiño umeak.*

*Biotzean ba-dituk
gauz maite garbiak,
neure semetxu legez
txit maite-maiteak,
arrisku-aldietan,
pizti gurasok lez
ni zuri deika, Jauna,
larri ta samiñez.*

GALLASTEGI'k

AITA PEDRO ARRUPE

Aita Pedro Arrupe, bilbotarra, eta Jesulagunen Nagusia, Filipinas'tik etorrela, Erroma'n, elbarriak jota geisorik aurkitzen dala, batek baiño geiagok ja-kingo dau.

Ain zuzen, orain iru edo lau urte izparringi-lari batek itaun au egin eutson:

—Zuk, Aita Arrupe, eriotzeari ba-deutsazu bildurrik?

—Ez, ezertxo ere ez. Alderantziz, lenbailen etortzea gura neuke. Eriotzea zer da bada? Bide latz baten amaia, beste bizi barri bat asteko. Orregatik, bada, egia esateko, eriotzeari ez deusat bildurrik.

—Ez, ete da, Aita Arrupe, gieiegi esatea?

—Ez, guk, kristiñauok, ba dakigu beste bizitzan Jaungoiko errukitsua aurkituko dogula, eta gure bizitza onetako erruak andiak izan arren ere, damututen bagara, Aita on-ona izango dala guretzat.

—Baiña, bizitzaren amaia goibela-tristea da.

—Baiña, ni fededuna naz, eta niretzat eriotzea ez da bizitza baten amaia, beste bizitza obe baten jarraia baiño. Bizitza zoriontsu orregaz, gure mundu ontetako bizitza, zeruan, osotu, obetu eta betikoatu egingo dala sinisten dot.

—Orduan zergaitik geutso gendeak eriotzari ain-beste bildur?

—Nik uste dot Jaungoiko zer dan eta nor dan ondo ezagutzen ez dabelako. Baita ere, baliteke, gure emengo bizitza ondo aprobetxatu ez dogulako.

—Baiña, dana dala, eriotzea mundu onetako gure bizitzaren amaia da.

—Bai, ala da, gorputzeko begiz begira ezker; ala da federik ez dabeneztat, baiña fedez begira ezker, ez dau barru-barruko bake eder ori kentzen. Eta geiago ere esango neuke, poza ere emoten dauela, Jaungoiko gure Aita onarekin betiko bizitzeko poza.

* * *

Orain artekoak Aita Pedro Arrupe'ren itzak izan dira. Orain bere azken egunen atetan dago. Osagillan eretxiz, bizirik luzaro iraun leike, baiña ez dau bere osasun osoa eskuratuko.

Ziur nago, berak esandako berbak benetakoak izan zirala, eta Jaungoiko Aita onak bere lan astunen ordain-sari ederra emango deusala.

GOIKOETXEA'tar Iñaki, S. S.

GORA BIOTZAK

*Il zorian da
gaur egunean
gure euskera
lantzana
euskal semeak
or geienetan
dabe lo zorron
barrena*

*Gutxi gara gu
beterik dago
erbestetarrez
etxea
itxartu ezik
euskaldun orok
amaituko da gurea.*

*Oraintxe bakar
dogu erea
euskal indarra
geitzeko
une onetan
lokartzen baga
dala guztia
bein ilko.*

*Euskeraz mintzo
sendi barruan
euskeraz txaiden,
guztitan
gure euskera
entzun dedilla
parra par alde
danetan.*

*Euskal idaztik
erosi sarri
euskal idazleak
benetan
euren lanagaz
ezi dagien
euskal erria
euskeran.*

*Abesti zantzo
irrintzi eta
euskal doñuen
oiartzun
mendirik mendi
zelai arrotan
entzun bei beti
ta zorun.*

*Ikastolak ta
ikastetxeak
sortu or emen
ugari
euskal iakintzak
indar artuta
euskera bizi
ta guri.*

*Ames egiñaz
nago begira
mendi aundiren
gallurtik
euskal erria
euskaldundu da
nire biotza
bai pozik.*

ZAR-GAZTE

DATORREN GIZALDIAN

2.005'garren urtean gagoz eta Arteaga senar-emazteakana goaz jaten.

Gaurko janaria da idarrak, lursagarrak, okela, zarrentzat ardaoa, eta umeentzat eznea.

Ondo deritxogu, baiña okelea ez da okelea benetan; sojaren urunagaz egindakoa, guk jaten dogu netatik ezin geinke berezitu. Neguan egon arren, ortuariak freska-freskak dira «ola» batetik, konputadorak argi beroa, eta ura isurtzen daben tokitik datoz-ta. Negubaraztetan negu guztian ortuariak landu leitekez.

* * *

Gaztai-egilleak botaten eben sueroagaz egindako ardaoa gustura edaten da, maatsagaz egin ez arren. Azkenik «vacas poliinsaturadas»'en da eznea; gustua bardin-bardiña da baiña ez dauka jendeai guztatzen ez jaken abereen koiperik.

Au asmapen utsa ete da? Gero-ko janariak asko saltzen dira eta esate baterako, 1980'garrenean 770.000 milloi pezeta balio eben janariak saldu ziran.

* * *

Eta, alan jarraitzen ba'dogu nora elduko gara? Lenengo, landarazko okelea, orain jaten dane bauño geiago artuko dogu. Gaur sojaren urunagaz egindako pernila, okela eta saltzixak erosi geinkez.

Eta au zergaitik? Erantzuna errez-erreza da. Alde batetik merkeagoa da eta beste aldetik ohea da proteina asko dauka ta. Beiak loditu daitezcan barazki asko bear dabez eta okela kilo bat emoteko, lau kilo barazki jan bear dabez;

ikusi geinkenez, bide au sojarena baiño karuagoa dala, gaiñera orain ludi guztian jakintsurik nagusienak billatzen dabiltz zelan janari geiago egin proteinakaz, merkeago, ariñago ludiko biztanletza asten dan ezkeru.

* * *


Janari oneik, eskuz egiñak ezagun aundiak dira. Ogia, izozkiak eta yogurrek izadian ez dagoz, gizonak egin ebazan, eta gaurko egunean arto poliinsaturada'ren orioa, sojaren orioagaz egindako gaztaia, ollasko eta indiollazko saltzixoa, maatsa gabeko ardaoa eta algakaz eta gelatinagaz egindako igaliak erosi geinkez.

Beltsvillen (Maryland'en) Abere-billaketarako Etxeak koipe gitxiagoagaz ezne eta okela emo-

ten dabezan beiak azten dauz. Baserriko egaztiak gero ta geiago jaten diranez, euri buruz lan egiten dabe pisu geiago euki daien. Orduan XXI gizaldian, ollaskoak indiollarlakoak izango dira eta indiollarrak abestruzelakoak.

Ortuarien oleak aurrera doaz eta Artikoan eta Saharan oletan, berezko lurretan baiño ortuari geiago landu leikie. Guzurrezkoa deritxo? Arizona'n 13.000 m²ko negu-toki bat dago eta ez da bear lur emonkorrik, ain ugari ludian dagon ondarrean landuten dabelako. Abu Dhabi'k basamortuko tomate eta pepino-batzea eta USA'koa zenbatzean, basamortuko ondorena askoz ugariagoa zala ikusi eben.

ASTRID Barona'k



GIZON OSPETSU BAT

(EGIA GUDALBURUA)

Egia, Letona, Izartza ta Ormatza'tar Frantzisko Ramon jauna, 1750'eko orrillaren 5'ean jaio zan Bilbo'ko eta Jon deunen eleizan bateatu eben.

Egia'tar Frantzisko ta Letona'tar Antonia izan ziran bere gura-soak.

Amazazpi urte bete ebazanera-ko, gogozko atzerritar eta oiñezko gudarien buru izan zan eta Arjelia'ko Panazala menperatzeko guda-ekiñaldian jokatu eban.

1781'ean Zeuta'n egoan gudari-taldearen buru. Laskun, Orrio ta Olabe'ko guda-ekiañai laguntza emon eutsen eta eurak, 45 urte eukazala, 1795'ko irailaren 4'an Mariskal maillara goratu eben. Aldi onetan asi zan bere nortasuna agertzen.

1797'an Jaka'ko politikari ta gudari-agintari izan zan eta iru urte geroago, Aragon-erreinuko komandante.

Geroago Gaztela'n Barriko Gudal-Ordezkarari izendatu eben eta 1814'an gudarako ministru. Urrengo urtean batzar Orokorrak Nagusi izendatzea erabagi eban: «Guda-Ministru dan Egia ta Le-

tona'tar Frantzisko Ramon, Jaunerriaren aintza agirian ipinteko, Seme Ospetsuen artean ezarri eben eta Erriari egindako laguntzen ezaugarri lez, Aldundiari baimena emon eutsoen aren oroitarrria Bilbao urian ipiñi dagian. Bilbo'ko Jaunerri-Etxean, gela nagusian aren argazkia ezarri eben, barru-asmapenen aren adierazpen egokia dan eta bere goientzaren zabaltasun ta gizabidezko gomutagarria izan daiten».

1822'an Baiona'n, Batzar Orokorren Lendakari egin eben, FEDEAREN GUDARITZA Errege Katolikuari kendu eta aginpide osoa emotea antolatze-ko.

Bere elburua Cadiz'ko Araudiaren aldakuntza zan. Ordura arte egoan araudiak ez eukalako indarririk España'ko zalaparta ta matxinadak itoteko.

Egia'ren ekiñaldiak San Luis'en eun mille seme esaten jaken gudaroste alkartua sortu eban.

VII Fernando'k Egia gudalburuaren laguntza eta otseintzak ondo saritu ebazan eta «Erregearen eskubidezko Konde» egin eban 1820'ko epaillaren 7'an.

1823'an, orrillaren lenengo egunean, Bilbo'ko Udaletxean urrengo erabagi au arru zan: «Bilbo uriak atsegin artzen dau eta opzarren zorionak emoten dautsoz biotzeko maitasunaz, seme txakoarria dan Egia'tar Frantzisko'ri bere kemen aundia-gaitik eta aberria ta erregetza zaintzen egin dituan lanakaitik».

Eta egun batzuk geroago, 1823'ko orrillaren 26'an, Antigua'ko Andra Maria'ren eleizan zin-egilleak bere seme argitsu dan Egia ta Letona'tar Frantzisko jaunari agiriz maitasuna agertze-ko, gure leiñargi entzutetsuakaz batera arduratu dalako auxe erabagi eban: «Zure goientzak, sendiaren armarri edo ikurdian ezarri leikez gure Jaunerri guztiz zintzo ta guztiz lealaren» itzak eta bere ondorengoai, autorpen au agerbiderik aundiena lez, Bizkai' tarren pozerako izan dagien, foruen iraupenerako eta babesera-ko.

Ogei ta amazazpi urtekoa zala, 1887'an, Madrid'en il zan, argitsu ta entzute aundiko bizkaitar ospetsu au.

LETONA'k

BASELIZAK ALKARTZAILLE

Euskalerriko auzunetan beti aurkitzen dira baseliza bat edo geiago.

Baserritarren kristautasuneraren ezaugarri dira eurak, argi-argi baserritarren kristautasuna edierazoten dabelako.

Beste onura askoren artean, baselizatxook baserritaren artean alkartasuna lortu izan dabe euren edestian.

Gizonak berez-berez eta jatorriz besteen artean biziteko jokera dau; bakardadeak tamalduten dau, besteakaz artu-emonetan dabil poz-pozik eta zoriontsu.

Gure baserritarrak, aste guztian, or emen banandurik dagozan baserri-etxeetan, erdi bakardadean bizi dira.

Auzuneko baseliza euren alkartzaille berezia gizardietan.

Orain errezago joaten dira urietara, baiña lenago oso gutxitan. Baselizan alkartzen ziran jai-igande eta bai ta maiatzeko illuntzietan.

* * *

Igande ta jai aarratsaldetan eliz-txonoko kanpai txoliñak detzen eutsen batzarrera ta, or joiazan pozik zar ta gazte, gizakume ta emakumeak elizatxora agurtza esatera ta, agurtza-ostean, elizpean edo inguruan, barriketa amaibakoa nagusiak, gazteak, txistu ta pandero edo trikitrixa bizkortzaille ebela, jolas ta dantza alaietan; umeak ostera arinketa, txopika ta beste umeen amaika josteta ta olgetatan, txilioka ta saratatsu euren jostaldi zoragarria.


* * *

Lore-il maiatzeko illuntziak bakegarriak elizatxo barru ta inguruan.

Betiko kanpaitxo zoliak alkartzen zituan baserritarrak.

Danak joiazan elizatxora, txakurrak etxe zain itxirik.

Neskatil liraiñak sagar gardiñaren usain garbiz beteak, «GUZTI GUZTIOK ALKAR ARTURIK» abestuaz asiera emoten eutsen elizkizunari, ori bai, danak erantzunik, ondoren agurtza, agur Maria bakotxa atzakaz zenbatuta; gero arren-letainak abestuta; urrengo, baserriko gizon urtedun arbasoak, idazti zaar bat irakurten eban eta azkenez, danak ao batez



eta indartsu AGUR JESUS'EN AMA» antxiñako abesti samur ta zarra abestuten eben, Barriketa alditxo bat eliz ondoan egiñik, danak bakean lotara, biotza bakean ebela eta alkar maitasun ederrean.

Orrelaxe gure baselizatxoak izan dira baserritarren alkartzaille ta baketzaille.

* * *

Areik egunak gogoratzen doguzanoi, orduan deure barruan sartu genduzan alkartasun, siñismen ta anaitasuna gorantzira ekarriaz biotza urtuteb jaku, bai ta be egiztu baserritarrentzat zein onuragarri izan diran baselizak.

Norbait or dabil elizatxook birrindu nairik.

Benetan gogorkeri itxua ta aberekoia!

Birrindu ez, zaindu ta edertu egin bear doguz, geure edesti zintzo baten atalak diralako!

Baserriak tamalez utsituz doaz.

Biztuko al dira ostera be, baiña biztuten ez ba'dira be, egon beiz tinko baselizak, ondorengo gizaldiai adierazoteko, zer izan diran, mundik datorren gure jatorria eta euskal erria kristautu zanetik ekandu eder ta zintzotasuna datorkuzan baserri ta baselize-tatik.

GALLASTEGI Klaudiok

ELORRIO'N

Asaba zarreen lana
sinismena bera letz
eder zan errian;
Jaikoaren etxea,
gizaldien gizaldiz,
itz arrigarrian.

Arria landu eben,
fedearen trukean,
izerdi artean;
nekez ederturiko
biotza eskein autsen
aldara aurrean.

Gizaldi askoren duin
izan zan Eleiza
euri - trumoetan;
aldiak mindu zaitu
ekaitzen ezbearrez
zorabioetan.


Baiña semien semeek
biztu dabe biotza
zeruko argian;
Elorrio bizi zan,
fedearen egitez,
lurraren gaiñian.

Jainko oiularia,
artzaiñaren makillaz,
jaiki da errian;
gizon barriak datoz,
alegiñak egiten,
arrien artian.

Laiñoak joan dira.
Itxaropen orleia
sartu da Eleizan;
argiak urretu dau,
azal ta barrutik
gizonen ekintzan.

Zein eder dan gizona
fedean ta lanean
arrigarrietan.
Izena ta izana
itzi dozuz landuta
ol ta arrietan.

EGIEDER




EZKER-ESKUIRA: 1. Trece.—2. Sobako.—3. Día (el).—4. natural de, oriundo de. Bautizo.—5. Ni palabra. Vengo.—6. Vos, usted (agente de zu).—7. Escombro. Vara, palo.—8. Interj. de sorpresa. Castilla.—9. Dónde. Dos.—10. Alli. Caza. Brotar.—11. Cesto. Hilo.—12. Disgusto. Tú, usted.—13. Dedo. Morir. Volar.—14. Verano. Tú mismo.—15. Televisión. Casi, a ver si.

GOITIK BERA: 1. Hermandad (la). Piel, cuero.—2. A, al.—3. Desgranar. Quitar, quitarse. Encender.—4. Cuajada.—5. tres. Hermano (de mujer).—6. Torcedura, torcido.—7. Reloj. Llegar, agarrar, maduro.—8. Es un sufijo que indica acción.—9. Milagro, prodigio. Oración (la).—10. Este, esto, ésta. Negación.—11. El decía. Poder. A punto de. Tú mismo.—12. Niño.—13. Espina. Navarro.—14. Prefijo intensivo.—15. Lamentable. Pamplona.

OAR BAT: Gurutz-izki au, Sabin'dar idazkeran dago í l ta abar.

15.^a ERANTZUNA



EUSKERAZALEAK

LANERA BARRIRO

Amaitu dira jaiak eta oporraldia eta etorri jaku barriro lanean jarraitzeko aldi egokia.

EUSKERAZALEAK-Alkarteak be, bere lanari sendo ta zintzo jarraituko dautso. Arlo guztietan, baiña batez be erriko euskerea ez dakienai irakasteko arloan.

LAGUNTZA BARRIAK

Ba-dirudi Eusko-Jaurilaritzak euskalduntze-lan au gogoz artuko eta orretarako dirutza aundia erabilliko dauala. Entzuten diran barriak onak dira ta poza emoten dauskue.

BALDINTZAK

Eta dirua emoten dauanak, jakiña, baldintzak ezarten dauz eta or izango da, zalantza barik, alkar-izketa argi ta zeatza egin-bearra.

Ba-daukagu euskaldunak eta Euskalerrriaren alde lan egiteko bideetan alkar ondo ulertzeko erak eta bideak izango diralako itzaropena.

JOKABIDE BARRIA?

Oraindiño Xabier Peña Irakasle aundi ta trebeak itzi euskun utsunea beteteen, ba-daukagu zer-egin gure jokabideko irakaskintzan.

Oraintxe gagoz une on eta garrantzitsu baten eta arazoak bideratu ta bide ziurrago bat artuko dogula uste dogu.

EUSKAREA TA BIZKAIERAZ

Bear ba'da urrengo ZER aldizkari onen zenbakirako jakingarri barriak eta obeak izango doguz. Ori gura genduke.

Ezelan al ba'da beintzat, euskerea irakastearen lan onetan etenik ez leuke gura gure Alkarteak eta, gaiñera, orain artean lez Bizkai'ko euskalkiaz berba egiten Bilbao'tarrai eta Bizkaitar askori irakastea izango da gure bidea.

ALKARTE BIZIA GARA

Gure ALKARTEA, alkarte bizia da eta bizi guztiak lez bere aurrerabidea izan bear dau.

Izan ebazan bere baztaroko aldi estuak, beste talde batzun antzera, eta bizirik jarraitu eban.

Gaur ba-leiteke aztearen larri-unea sortzea, baldintza barri oneik aurrean dirala, baiña olako larri-uneak beti, edo geienetan beintzat, obarako izaten dira.

BESTE ALKARTE BATZUKAZ

Bizkaieraz irakasten daben beste talde edo erakunde batzuk be ba-daukaguz inguruan eta orreikazko artu-emonak zabaldu ta sakondu egin bear doguz.

Zeintzuk diran?

Batzuk aitatzearren, Labayru bere ikastaroaz eta Izkuntza-Eskola. Or inguruan, baita, lan ederra egiten diarduan Erri-Irratia.

Ez dira bardin-bardiñak gure bizkaierearen aldeko jokabideak, baiña ez-bardintasun txiki orreik alkar-izketaz konpondu edo orrelan dirala bakoitza bere bidean eta alkartuta lan egin bearko dogu.

ALKARTASUNA

Batasuna ta alkartasuna, batez be alkartasuna, bear bearrekoak doguz. Eta orrek alkar-izketak eta batzarrak eskatzen ditu.

Asko poztuko gintzakez ikasturte barriak onetan jokabide barriak ekarriko ba'leuz.

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...


ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zerre urtea zuzan



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**